

MUNIBE (San Sebastián)

Sociedad de Ciencias Naturales **ARANZADI**
Año XXIII. N.º 4. 1971. Páginas 609-613

Ezkontza eta Urdiain'go ohitura zaharrak.

JOSE M.^a SATRUSTEGI

Ezkontzari buruz gauza asko ta asko esan laike gure artean. Lan mamitsuak idatzi ere bai. Baina, han-hemenka hartutako esames eta gertaera larrienak erabiltzea baino hobe derizat, toki bakoitzeko ohitura eta xehetasun guziak jasotzea. Izan ere, neska mutilen herri-giroa aurrez adierazi ondoan hobeki ulertuko da haien jokabidea.

Nafarroan, Burundako ibarra hartuko dut oraikoan oinarritzat; eta Urdiain-go herria aztergai. Zer esanik ez, ohitura hauek egina dutela berena; azken urte hauetan erabat galdu dira.

HERRI GIROA

Bi alde ibili ohi ziren herriko neska mutilak. Igandetan danbolin soinua izaten zen eta aurrekuan paineluakin egiten zuten soka-dantza. Gau-ezkila (Avemaría) jotzean ixiltzen zen soinua.

Denbora txarrarekin eta negu denboran, etxe barnean balin ba zen, dantzaldi bakoitzaren ondotik mutilak baztar batera inguratzen ziren, eta aurrez aurre, beste aldean neskatillak. Gaizki ikusiak zeren nahas mahas ibiltzeko jostetak.

Urtearen buruan ba ziren gaztediaren zombait egun lokarri hauek hausten zituztena: Errege, Santa Ageda, San Juan ta San Pedro. Gau-onetan intzaurrak ematen zizkieten neskak mutilei; mutilak, berriz, txokolatia emakumiei. Santa Agedetan batzuk piper-opilak, eta besteak txokolatia.

Urtetik urtera, festetan eta feritan joaten ziren Altsasura. Atsalde guzian zoin bere alde ibili-orren, neska mutil guziak elkarrekin itzultzen ziren atsean.

ARDAZKETA.—Gaur etxe batean eta biar bestean, herriko neskatx guziak ardazketako biltzen ziren neguan. Beren kideko mutilak buruak estali ta leihotik zelatan egoten ziren. Batzutan neskatoak berak adierazten zieten nungo aldi zuten, eta elkarrekin biltzen. Oso gaizki ikusia zen. Apezak jakiten ba zuen, alkatea deitu ta handik aizatzeraz joaten ziren biak. Nunbaitik jakiten zuten eta nekez arrapatzen zituzten. Askotan, alkateak berak seme alabaren bat saltsan izaten zuen.

Soro lanetan, eguerdi garaian laiak estaltzea izaten zen neska mutilen arteko beste jostagari bat. Emakumeak, nunbaiteko erreka zuloan; eta gizakiak, berriz, arbol puntan.

Neska batez gustatzen zela adierazteko, marka txikien batez baliatzen zen mutila. Lanen bat egiten lagundu; aurrekuan dantzara atera, edo *lilaian* bat polita eskeini. Lilaia, hari mordoa biltzeko makiltxoia izaten zen; batzutan, neskaren izena edo beste apaingarriren batekin landua.

Seinaldea on-hartzea ahaidegoan sartzea bezala izaten zen. Legea egiten zuen. Behin, mutilaren etxetik odolkia bialdu ziotela, aitortu zidan amandre batek. «Ez hartu!!», esan zion bere amari. Ixilian senargaia ba zuen lehenagotik.

Mutilak, bere asmoa agertzeko trebe ez ba zen, ama bialtzen zuen neskixaren etxera. Berrek esateko egunik egokienak Errege, Santa Ageda, San Juan eta San Pedro izaten ziren.

Herriko mutilak gaizki hartzen zuten kanpotarrekin ateratzen hastea neskatoak. Bertza, porron ta beste erremendu batzuekin hots hundiak ateratzen zituzten kanpoko mutila etxean zen denboran. Haitzkan eman ere bai, behin baino gehiagotan.

Mutilarentzat apaltasun haundia zen neskixak ezetz esatea. Heriotzak etorri izan ohi dira hortatik. Batez ere, gizonezkorik ez ba zen etxean gaizki ibiltzen ziren emakumeak. Indarra zen alkate. Etxe batean aita amak bost alabekin bizi ziren. Aita, bere lanbidez, etxetik kanpo ibiltzen zen. Gau batez dinamita sartu zioten etxeari, eta gero bertsuak atera:

Kapaxo-n Juan Mielek
bi ipurtats ba ditu,
haik zer esaten tuzten
nahi nituzke aditu.
Kapaxo-n etxartien
dinamita motza,
ojala kendu balio
Frantziskai okotza.

Frantziskak esan dio
Ama, neuri utzi
pantalona jazteko
biar edo etzi.
Kapaxoin alaba hoiek
Fidelekin pronto
Fidelek esan dio
eneiz orren tonto.

Beste batzutan, ez zen gauza ikaran gelditzen. 1910-ean Ameriketatik bialdu zion semeak aitari, hari ezetza eman zion neskatoa hiltzeko agindua. Eta bai gauaz hil ere Urbasa mendika artzai txabolan, hogeitaz bost urteko emakumea.

Aingeru Zaindari egunean, martxoaren lehenbiziko egunean, Irurzungo ferira joaten ziren gazteak eta han hitzartzen zen nor norekin, zer arrija modu eta soro izango zuten.

Emakumeak, beste alde, ba zituen bere sareak edatzeko bideak. Esana da Gauonetan intzaurrak ematen zizkietela mutilei; Errege bezperan afaria eta Santa Agedatan, piper-opilak. Era hortan, elkarretartzeko aitzakia izaten zuten. Gauaz nun biltzen ziren jakinarazteko paper kolorezkoz inguratutako argi-untziak piztutuz zizkieten leihotan.

Ohitura zaharra zen neskixak, bakarka edo samaldan, Santa Marina egunean ermitari hiru itzuli ematea. Urte barruan ezkontzen omen ziren.

Arakil aldean, berriz, katu-begiak ezartzen omen zituzten ilargi kanbiotako gau batez lehoan. Beren gogoko mutilaren bihotza ukitzeko izaten omen zen.

Frantziako hizkuntzan dela ta, Prointzia-ko mikelletearen gertakizun hau bildu nuen Ur-dain-en:

—Hela! hela! Esan dit mikelete jaunak ia harekin ezkonduko zeran.

—Jesu, Jesu! Mikelete jauna nitaz oroitu? Zer gertarik ere baietz errakozu. Errakozu nolako emakume prudenta eta pasa-erreza naizen: goizean ohean nagolarik baso bat aguerdenta; ohetik jeikitzean presta bat txokolate. Hamar-hameketan txingar zapla, bi arrontza pareta, baso bat bete arno ta sos baten ogia. Harekin egoten naizela oren bat artean.

Ezkon - gaiak

Senargaia ez zen orai bezela andregaiarekin ateratzen. Altsasun bai; hemen baino lehenago ohitura hori sartua zen. Ixilka ibiltzen ziren. Gauza erdi egina zegonean ikusten ziren biak festetan elkarrekin dantzan; eta ordua ere gauaz. Altsasutik etxerakoan ziren elkarrekin etortzen.

Larunbatean joan ohi zen mutila andregaiaren etxera. Lagunak zelatan ibiltzen zitzaizkien. Gertakizun ugari ba da gai hontaz. Erdozia ta Joxe Mari, lagun bi ziren. Lehenbizikoari joku txar bat egin nahi izan zioten beste mutilak:

—Hi, Erdozia; ba dakik Joxe Mari andregai ba duela? Ikusi behar huke noiz datorren etxera...

—Hori eginen diau, ba.

Denak elkar hartu ta, Joxe Mari hori ilundu orduko ohera. Gero, Erdozia, etxe ondora. Argitu arte han egon eta, Joxe Marien aitak nun abesten dion bertsu hau leihotik:

Joxe Mari, jeiki hadi!
Hor zegok Erdozia
dirudiela zakil haundi
Idiartein etxe eskinai japio!

Beste mutil batek anketakoak atzekoz aurrera jantzi omen zituen andregai ikustera joateko. Salatariak elurrean markak ikusi zituenean uste izan omen zuen itzulia zela bere etxera, ta bakea ukan zuten maitaleak.

Aitona batek zion, bera gaztea zela andregai ikustera joatea gogoratu zitzaiola. Ataritik sartzeko gogortxo iduritzen eta gur-sokia bota leihora. Neskixak eutsi ta, bera sokatik gora igan ornen zen. Biramonean, goizeko meza ondoan, soka eskuan duela itzuli izan behar zuen bere aita etxera:

—Aizak! Norena duk gur-soka hau?

—Geuria. (Eta hantxe aitortu behar izan zion aitari andregai ba zeukala. Ikaragarritzko lotsa pasatu omen zuen).

Dirudinez, gizakia arrotxo agertzen zen emakumearen aurrean. Mendiko guarda izanki, zion horrek berak, neskix bati laguntzera joan izan behar zuen alorrera; eta besteak muturra ezarri. **A bai!** esan omen zuen bere baitan; **etorriko haiz nahi ba dun bila!**

Halako batez, menditik egurrakin heldu zela gurdia itzuli neskari. Gerta hadi, guarda han! Hotsegin omen zion, bai, hotsegin! Geroztik, adiskidetu eta biak ezkondu ziren.

Senargaiak baztarte, andregai hilik uztea bezela omen zen. Behin batez, neska samalda bat beren mutilekin asarratu ta otordu bat prestatu omen zuten, ustez berek jateko. Oraintxe ta erdi bulkatua dute, gitarra hotsa:

—Heldu tun! heldu tun! esan zioten elkarri.

Gatilu ta eltzeak ahal zuten bezela baztatu ta ba daude mutil hoiien zai. Besteak berriz, atarian kantatu, nahi zituzten koplak bota ta, etxean sartu gabe itzuli omen ziren ostatura. Emakume haien negar, eta ezin iretsia zerbait ba omen zen.

Senargaia zeukana arrotxo ibiltzen omen zen! Iluntzean soroko manta burutik hartu eta, mutila beste batekin estaldurik, herri guzia barna joaten ziren, ez zeukanari odol gaiztoa eginarazten.

San Antoniori otoitz egiten zioten senargaia bilatzeko. Ba dira bertsuak ere.

Aita San Antonio
galduen biltzalia
eta bilatuak gordetzalia:
emanezazu neri
Martintxiko auzokua.

Altsasun, berriz, Otadi-ko Kristoa zuten neskak beren amets-leku.

Senargairik ez zuten neskatxak etxean gelditzen ziren igande atsaldetan. «Ixebak» esaten zitzairen.

Senargaiak ez zuen ezkondu aurretik bere andregaiaren etxean lorik egin behar; etorkizun txarraren marka (presajio txarreko gauza).

Ezkongaiak ez zuten bataiotan haur bat elkarrekin jaso behar. Bien adiskidantzak azken txarra izaten zuela.

Preguak (elizako deiak)

Garai batean oso gazterik eskontzen omen ziren Urdiainen. Soldau ez serbitzeatik omen zen. Ailatu omen ziren hamasei urtetan ezkontzen. Erdaldun bat ba omen zen herrian eta hala esaten omen zuen: «Yo me casé a los diecinueve y tiré la quinta con poco. Corto recorto!» Berez oso txikia zela diote.

Lehenago berriz, «de capa y sombrero» ezkontzeko ohitura izan omen zen. Hori esaten zidanaren aitona Ataundar bati saldu omen zion gero arropa.

Hiru pregu-aldi izaten ziren. Lehenbiziko deiaren egunean hasten zen andregai arrija erakusten; mezatik ateratzeko espera, gauzak erakusteko. Ganbara zelaian zabal zabala egoten ziren gauzak eta kondatu egiten zituzten. Ez zen orai bezela «zielorrasoik» etxean, eta hautsa par-par-par goitik behera. Gero, gela barnean erakusteko moda etorri zen eta ohera joateko biltzen lan ona! Preguak irauten zuten hamabost egunetan ibiltzen zen jendea gauzak ikusten. Neskixak lehenbiziko egunean joaten ziren danak. Sentitu egiten zen norbait arrija ikustera ez agertzea.

Bigarren pregu ondoko astelenean egiten zen ezteietako gomitia. Eztei bezperan, berriz, herri guziarendako afaria ta musika.

Galak ateratzera ezkongaiak eta bien amak joaten ziren. Aldiren batez aita ere bai. Ez zen eraztunik erosten. Etxe batzutan izaten ziren eta zuenak, ez zeukanari uzten zion. Senargaiak mantilia beltza erosten zion andregaiari; eta anketakoak, bai andregaiari, eta bai amari. Aizparen bat balin bazuen, hari ere bai. Andregaiak eztei eguneko ator zuria erosten zion mutilari. Trajia gizonak berak erosten zuen.

Denborakin aldatuz joaten ziren gauza hauek. Zeharrenetako batek esan digu, haren denboran txalekoa eskeintzen ziola emakumeak gizakiari. Gehienetan Etxarrira joaten ziren galak erostera. Beste emakume batek zionez, preguen lehenbiziko igandean ez zen ezer egiten bera ezkondu zenean. Hirugarren igandean gaztaia ta ogia ematen zitzairen ardoaikin, ezteietara joan behar ez zuten gizonei. Emakume gomitatuak izan ez zirenei, berriz, txokolatea.

Ezteiak

Ezteiak etxean egiten ziren denak; ez ostatuan, orai bezela. Hots haundikoak izaten ziren. Kitarra soinuakin dantzatzen zen jendea, eta asko inguratzen ziren mahaira. Goizetik, meza aurrean, gosaria; tripotxak eta ogia, ardo zurruta batzuketan. Meza, bedratziak aldera izaten zen. Gero, arrija aldatzia (arrija ehatia) .

Hotsak ixildu ziren, bai, ixildu, hemeretziko gerra ondoan. Festa gutxi eta etxekoen artean. Gero lehengusuen bat eta osebak. Dirurik ez zen ikusten, garai hartan. Orai, berriz, denak aberatsak...

Bai andregaiak eta bai mutilak lagun bana bilatzen zuten; konfesatzeko laguna esaten zitzaion. Oraiko testigua. Honek Sazkaria berekin zuen. Gizonaren konfesatzeko lagunak erematen zuen arrijaren gurdia mutilaren etxera. Emakumearen konfesatzeko lagunari zapata pare bat ematen zitzaion.

Meza ondoan «**arrijia aldatzia**»; **arrijia ehatia** (erematia) asaten zen Urdiainen. Idiak kope-tako gorri ederrenekin uztarrian lotu ondorean zortzi edo hamar txintxarridun lepoko larru ezar-tzen zizkieten. Ferira eta erromerira joaten zireneko gorderik egoten ziren etxetan. Maiatz ar-bola ere joare txiki hoiekin ekarri ohi zuten.

Gur-zilari burnizko txapa kentzen zioten txirrikak hots gehiago ateratzeko. Herriko anima guzaik ateratzen ziren ikustera. Gora-gora beterik joaten zen gurdia: arramaio eta oheak, be-heretan. Karreton haundiak zuti baztarretan, eta denen gainean jergona ta koltxonak. Ohe-gaine-ko ikusgarriena zabal-zabala gauzak estaltzen, eta senargaia gurdi gainean.

Andregaiaren arrijia bakarrik erematen zen era hontan. Gizonak ez zuen hainbestekorik izaten. Esan dugun bezela, konfesatzeko laguna izaten zen itzaia. 1920-an izan, zen azkenetako bat. Gero, denboraren buruan, 1941-ean egin zuten berriz. Geroztik erabat galdua da ohitura hau.

Gonbiatuak laguntzen zieten etxea ezartzen. Mezatik atera eta bazkaldu bitartean hortan aritzen ziren. Gero, andregaiaren lagunak egiten zuten ezkon berrien ohea.

Ezkon berriak ez tiren herritik ateratzen. Beti ba zen norbait gelan sartu ta ohea nahas-ten ziena. Izara erditik doblatu ta «petaka» egiten zieten oherakoan ezin sartuz ibilarazteko. Joku honen berri galdetu dut eta, oso zaharra dela ikusten da. Beti hala ezagutu dute herrian.

Ez hori bakarrik: sekulako atsaikeriak asmatzen zituzten gainera. Txintxarri ta joareak lo-tzen zizkieten ohe azpian; hango musika! Beste batzutan, izara artean gatza botatzen zieten, eta hori ez zateken hain atsegina. Ohea erdi askaturik utzi ta lurrera joan ere bai, behin baino gehia-gotan (1).

Bazkari hau egiten zen: Oilo salda edo aragi salda. Gauza haundia bezela fideoa hasi zen garai hartan. Gero txixirioa (garbanzo), eta aragia. Ogia, ardoa eta edariren bat. Dantzako den-boran egiten ziren ezkon-berrien gelako txarkeriak.

Arrijia

Ez ziren denen arrijak berdinak izaten. Bakoitzak ahal zuena. Gizakiak ez zuen oherik ere-maten, bi ohe-azal, koltxona ta ehunezko izara lodiak, baizik.

Emakumeak beti gehiago: ohea, arramaiua (komodia), bi sila hamabi juego izara, beren buruko azalekin. Lehenago **ubazalak** izaten ziren. Hiru aldetatik jositako zorroak. Haiek betetzen ziren eta oraiko manta hoiien aldia egiten zuten ohe estalgitan. Oihal guziak etxean eginak.

Beste askok, berriz, dozena beharrean, dozena erdia erematen zuten.

Sorgin famako atso batek hala esan omen zuen eztei egun batean:

—Txerria hiltzeko astea eta ezkontzen den urtea tun hoberenak! Gero ikusiko dinau!
Urdiain, 1970. Maiatzak 15.

J. M. SATRUSTEGI

(1) Joareak ohe azpian lotzea oso zabaldurik zegoen Nafarroan. Hona Etnologi eskolan ikasle batek esan zidana: «Sucedió en Campanas, hacia el año 1930. La comitiva se trasladó de un pueblo a otro para acompañar a la novia a casa del novio. Colocaban un cencerro en el somier de la cama de los esposos y hacían la fiesta en la habitación, con bailes, comida, dichos y chistes. Llevaban un pollo asado a los recién casados. Se les localizaba y no podían eludir la fiesta: eran capaces de romper la puerta para celebrarla.»